


## GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

### OINARRIAK



**1) GAIA:** 2015eko udan munduko edozein lekutan egindako bidaia, txangoa, egun-pasa... argazkien bitartez kontatu.

### **2) ARGAZKI-SORTAREN NOLAKOTASUNA**

- 20-25 argazki arteko argazki-sorta aurkeztu behar da.
- Argazkiak argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dira.
- Argazki-sorta eta argazki bakoitzari euskarazko izenburua jarri behar zaio. Horrez gain, egindako bidaia, txango edo egun-pasaren azalpen laburra bidali behar da (500-1000 karaktere artean). Izenburu eta azalpenik gabeko lanak ez dira kontutan hartuko.
- Argazkiek 300 ppx erresoluzioa izan behar dute, eta JPG edo PNG formatuan aurkeztu behar dira.

### **3) PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

- Parte hartzaileek ez dute zertan gasteiztarrak izan behar, euskaldun orok har dezake parte lehiaketan.
- Udazkenean argazki-sorta irabazleekin argazki erakusketa egingo da Oihanederren eta irabazleek bidaia, txangoa edo egun-pasaren aurkezpen publikoa egin beharko dute. Horretarako aurkeztutako argazkiekin aurkezpen bat prestatu beharko dute (PowerPoint, Prezi...)
- Parte hartzaile bakoitzak nahi beste argazki-sorta bidali ahalko ditu baina saritua suertatzekotan lan bakarra baino ez da sarituko.

### **4) LANEN BIDALKETA**

- Argazkiak **2015eko ekainaren 22tik irailaren 23ra bitartean**, biak barne, bidali behar dira [oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus](mailto:oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus) posta elektronikora.
- Argazki bakoitza dagokion izenburuarekin bidali behar da.

- Posta elektronikoaren gaien *Gasteiztarrak arraun the world* jarriko da.
- E-postan, argazkiez gain, bidaia, txango edo egun-pasaren azalpena eta honako datuak zehaztu beharko dira: izen-abizenak, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.

### 5) EPAIMAHAIA eta EPAIA

- Epaimahaia Oihaneder Euskararen Etxeko teknikari batez, Arte eta Lanbide Eskolako irudi saileko irakasle batez eta Gasteizko hainbat euskara elkartetako kide banaz osatuta egongo da.
- Epai urriko lehen astean argitaratuko da, Oihaneder Euskararen Etxeko webgunean ([www.oihanedereuskararenetxea.eus](http://www.oihanedereuskararenetxea.eus))

Epai egiterako orduan baloratuko dena:

- Argazkien originaltasuna, gaiarekiko lotura, kalitate artistikoa eta teknikoa.
- Argazki-sorta eta argazki bakoitzaren izenburua.
- Bidaia, txango, egun-pasaren azalpena.
- Aurkeztutako argazkiak sare sozialetatik zabaltzekotan #gasteiztarrakarrauntheworld traola erabiltzea eta Oihaneder Euskararen Etxea aipatzea baloratuko da.

### 6) SARIA

Guztira bost sari emango dira. Sariak ezin izango dira metatu. Sari bakoitzak honako sari hornidura izango du:

- **300 €:** Saritutako 5 proiektuen egileek Durangoko azokan asteburu pasa kulturala irabaziko dute: 2-4 pertsonentzako gau bateko egonaldia Durangon (150 €) eta azokan gastatzeko 150 €ko bonoa, guztira 300 € sari bakoitzeko.
- **Argazki erakusketa:** Saritutako lanekin udazkenean argazki erakusketa egingo da Oihaneder Euskararen Etxean. Argazki-sorta bakoitzetik 5 argazki aukeratuko dira erakusketan jartzeko. Erakusketa urriaren erdialdetik azaroaren amaierara arte egongo da ikusgai.

- **Aurkezpen zikloa:** Irabazleek bidaia, txangoa edo egun-pasaren aurkezpen publikoa egingo dute. Horretarako aurkeztutako argazkiekin aurkezpen bat prestatuko dute (PowerPoint, Prezi...). Oihaneder Euskararen Etxeak, Gasteizko hainbat euskara elkarterekin elkarlanean, Gasteizko bost leku bilatuko ditu aurkezpenak egiteko. Aurkezpenak urriko 4. astean hasiko dira eta astero bat egingo da azaroko 3. astera bitartean.

## 7) OHARRAK

- Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo dezakezue: [oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus](mailto:oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus) edo telefono hauetara deitu: 945 16 16 16 (3438) – 615986831
- Lehiaketara aurkeztutako argazki guztiak Oihaneder Euskararen Etxeko webgunean ([www.oihanedereuskararenetxea.eus](http://www.oihanedereuskararenetxea.eus)) ikusgai egongo dira baita Oihanederren sare sozialetan ere. Sarean argitaratzeko neurri egokiak emango zaizkie argazkiei.
- Aurkeztutako argazkiak Oihaneder Euskararen Etxearen esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik.
- Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo arrazoiren batengatik (iraingarria izategatik, esaterako) lehiaketaren izpirituarekin bat ez datorrela uste badute, ez argitaratzea erabaki ahalko dute.
- Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

\*Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen “JARDUEREN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA” fitxategi automatizatuetan sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak bere eskumenen alorrean antolatzen dituen interes kultural edo sozialeko jarduerak kudeatu, ezagutarazi eta sustatzea da fitxategi horien helburua. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu —dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, jo ezazu Udalaren Argibide Bulegora —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz— edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.